

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroaren parte hartze tailerraren akta

2008 maiatzaren 22an.
Legazpiko udaletxean.
18:30etik 20:00etara.



● Guztira, 24 pertsona, ordu eta erdi, eta 5 gai aztertuta

¡Ez gutxiago eta ez gehiago!

Goiko hori izan daiteke gaurko saioaren laburpena. Gainera bilerak askoz ere gehiago eman du; zenbatu ezin diren bestelako emaitzak jaso dira eta bertan parte hartu dugunok bizi izan dugu hori.

- Lanerako gogotsu etorri den taldea izan dugu eta oso parte hartzailea gainera:

Joxean Auzmendi (Ingurugela-Legazpi) ♦ Bixente Garmendia ♦ Montse Vallejo ♦ M^a Amor (Iratzarri) ♦ Isabel Vallejo (Olazabal Institutua) ♦ Ana Manzanos (Domingo Agirre ikastetxea) ♦ Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola) ♦ Floren Gutierrez ♦ Fernando Arakama ♦ Juan Carlos Altzelai (Harri Urdin Brinkolako Auzo Elkarte) ♦ Jose Luis Cid ♦ Manuel Fernandez ♦ Iban Odriozola (Illinti) ♦ Fernando Martinez de Albeniz ♦ Josune Makaia (UGGASA) ♦ Jose Luis Ugarte ♦ Raquel Ropero ♦ M^a Cruz Alustiza ♦ Junkal Fernandez ♦ Sotero Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Ion Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

- Gaiak! Interesgarriak izateaz gain, konpromisoak eta lanari ekiteko erronka dira; horrek ematen digu elkarrekin lanean jarraitzeko indarra, izan ere asmo horiek errealitate bihurtu nahi ditugu.
- Eta lan-giroa, ohi bezala, atsegina, eraikitzailea eta, nola ez, parte-hartzailea izan da!

Horregatik, guztiagatik, **mila esker denoi!!!**

● Zehaztuz, hona hemen hemen gai bakoitzean landutakoa

Esan dugun bezalaxe, bost izan dira gaurko tailerlean landutako gaiak:

1. **Legazpiko natur ondarea.** Apirilaren 3ko Foroan zehaztu genituen jarduketa-proposamenetatik, zeintzuk dira gure ustez datozen lau urteetan bideratu behar direnak? Lehentasunak ezarri.
2. **2008ko Aste Berdea** ospatzeko programa: Forotik, animatzen al gara zerbait egitera?
3. Udaletxean **papera erosteko araudi** berria.
4. **Legazpiko Iraunkortasunerako III. Ekintza Plana** egiteko prozesua: nola plazaratuko ditu Agenda 21eko Foroak bere ekarpenak?
5. **Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Plana.** Jendaurrean agerian egon den epean, zein izan da herritarren erantzuna? Ondorioz, zein aldaketa proposatuko dizkiogu mugikortasun iraunkorreko Planaren Aurrerakinari?

Segidan, banan bana bilduko dugu emandako informazioa eta lortutako emaitzak.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

1. **Legazpiko natur ondarea.** Apirilaren 3ko Foroan zehaztu genituen jarduketa-proposamenetatik, zeintzuk dira gure ustez datozen lau urteotan bideratu behar direnak? Lehenetasunak ezarri.

Aurreko bileran jasotako proposamenak irakurri ondoren, **norberak bere lehenetasunak ezarri ditu eta, ondoren, egindako lanaren berri eman diogu elkarri.** Zertarako? Datozen 3-4 urteetan (Mugikortasunerako III. Ekintza Plana gauzatzeko epea) bideratu behar diren ekintza garrantzitsuenak edo lehenetasunekoak zeintzuk diren jakin nahi izan dugu.

Horrek zer esan nahi du? Atera ez diren ekintzak ez direla kontuan hartuko? Inondik inora! Proposamen guztiak dira garrantzitsuak; beraz, lehenetasunak ezarrita ekintza desberdinak ordenaren arabera ezarriko dira eta gero Udalak horiek zehatzago aztertu beharko ditu eta datozen urteetan planifikatu egin beharko du bere ekintza plana.



Segidan, **boto gehien jaso dituzten zazpi jarduketa-proposamen** azalduko dira. Ezarritako lehenetasunak 1. Eranskinean jaso dira zehaztasun guztiekin.

Ondoko hauek dira Agenda 21eko Foroaren ustez, natur ondareari dagokionez Legazpin lehenetasuna duten ekintza-proposamen garrantzitsuenak:

Ekintza-proposamena	Boto kop
<ul style="list-style-type: none"> Aizkorri eremua: <ul style="list-style-type: none"> Udalerriak modu eraginkorren parte har dezala Erabilera eta Kudeaketa zuzentzeko Planaren zehaztapenean eta betetzean. Udalak eta udalerriak "Aizkorriko Parke Naturalerako atea" izatea bultzatu dezala. 	18
<ul style="list-style-type: none"> Administrazioaren, basozainen elkarten eta/edo jabe pribatuen artean lan egitea sustatu. Helburua: Legazpiko baso eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa bultzatu, horretarako ondoko neurriak hartuz: <ul style="list-style-type: none"> Baso-kudeaketa iraunkorragoa lortzeko aholkuen eta jokabide onen berri eman eta horretarako dauden laguntzen gaineko informazioa eman. Zuhaitzak moztu aurretik azterketak egin, mugak eta moduak zehazteko helburuarekin (hasiera batean lan hori basozainen egitekoa da baina lan hori indartzea komeni dela ikusten da). Udalak landatu gabe dagoen baso-lurra eros dezala, lurzoru horretan bertako espezieak landatzeko. Baso-pista gehiago zabal daitezela debekatu/mugatu eta horietatik dabilzan ibilgailuen igarobidea kontrolatu. Hazkunde laburreko espezieen landaketa udalerraren eremu indartsuenetara mugatu (edo, gutxienez, horren berri eman jabeei). Legazpiko baso-eremuen bilakaera ikustaraztea ahalbidetuko duten adierazleen kalkulua eta jarraipena egin eta neurriak hartu. 	17

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

(Aurreko orriaren jarraipena)

Ekintza-proposamena:	Boto kop
<ul style="list-style-type: none"> Zabaltzeko eta sentsibilizatzeko jarduketak bultzatu: <ul style="list-style-type: none"> Erreka eguna ibaia balioesteko ekintza gisa (jarraipena eman). Naturaren gaineko argazki-lehiaketa eta/edo ikastaroa. Legazpiko natur ondareari eta inguruneari buruzko argazki erakusketa, dauden errealitate egokiak eta hobe daitezkeenak erakutsiz. Irteerak eta txangoak (ikastetxeekin koordinatuz). Legazpin baso-lursailak dituzten jabeen artean lehiaketa antolatu, lursail horiek kudeatzeko jokabide egokiak sarituz. Urola Garaian biodibertsitateari buruzko bi urteroko lehiaketa sortu. 2009-2010 ikasturtean biodibertsitatea aukeratu Eskola Agenda 21eko ardatz gisa, ikasturte horretan udalerrian ere gai horrekin lotuta dauden ekintzak sustatuz. Aholkuak kontsumo iraunkorrari buruz lehen sektorean (herriko produktuen sustapena, arrainaren kontsumo arduratsua,... etab.). 	15
<ul style="list-style-type: none"> Urola ibaia eta arroa: Ibaia eta iturburua babesteko neurriak hartu eta, era berean, natur baliabide horren balio estrategikoa zabaldu. 	12
<ul style="list-style-type: none"> Legazpiko natur ingurunearekiko jokabide desegokien edo erasoan aurrean herritarren "salaketa" eta kontzientzia kritikoa sustatu, jokabide horiek agerian gera daitezen eta horien aurka hartu beharreko neurriak har daitezen. 	12
<ul style="list-style-type: none"> Udalerriko natur ondarearen Inbentarioan balore eta ezaugarri bereziak (flora, fauna,...) dituzten Legazpiko eremuak babesteko eta zaintzeko helburuarekin, Administrazioaren eta jabe pribatuen artean herrialdea zaintzeko hitzarmenak bultzatu. 	11

2. 2008ko Aste Berdea ospatzeko programa: Forotik, animatzen al gara zerbait egitera?

Hasteko, Inma eta Josuneren laguntzarekin, Udalak 2008ko Aste Berdea ospatzeko prestatu dituen ekintzen berri eman dugu. Ekintza horiek eskualde mailako bestelako erakundeekin prestatu dira (UGGASArekin adibidez). Aurreikusitako hainbat ekintza zehaztuko ditugu:

- Trena eta Bizikletaren III. jaieguna, ekainaren 1ean.** Aurten, ez dugu RENFEko zonaldeko Zuzendaritzaren laguntza jaso (zuzendaritza aldatu egin da eta oraingoak ez du trenean bizikletak erabiltzea bultzatzen), baina hala ere ospatu egingo da eguna; datorren urtera begira, RENFEkoekin berriro gaia lantzeko ahalegina egingo dugu.
- GAP programa:** familiarekin programan parte hartu nahi duenak izena eman beharko du ekainaren 5etik irailaren 14ra (horretarako ekaineko Gidarekin banatuko den inprimakia bete beharko da edo Interneten izena eman).
- "Fokatu Urola Garaia" argazki-lehiaketa.** Aurtengo gaia "Kontsumoa" izango da eta gai horri buruzko argazkiak aurkezteko epea maiatzaren 30ean bukatuko da. Sariak ekainaren 5ean banatuko dira.
- Zaborteia ikusteko irteera, ekainaren 7an.** Ezinbestekoa da izena ematea, udaletxera deituz edo bere Web orrian (www.legazpiko-udala.info) izena emanez.
- Ibaialde- Ibaia ekainaren 27an bisitatuko da.** Taldean eztabaida sortu da aurten aztertuko den ibai-tartearen gainean; gai hori antolatzaileek zehaztuko dute.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Horrela, **proposamen**-galdera batekin bukatu du Inmak azalpena: nola ikusiko luke Agenda 21eko Foroak ondoko proposamena?: **eremu natural bat (mendian nahiz herri barruan) garbitzeko irteera bat antolatzea eta irteera hori didaktikoa** izan dadila (garbitzeaz gain, bertan parte hartuko duten pertsonak ikasi egin dezaten)

Taldeak ondo ikusi du proposamena baina atzeratzea eta beranduago egitea proposatu du eta Izadi Zaleak taldearekin kontaktzea hura gauzatzeko. Horrela, hauxe da erabaki dena:

- Uda ondoren antolatzea (irailean edo urrian), igande goiz batean.
- Garbituko den lekua ez da zehaztu, baina aukera batzuk eman dira: Lakiola; Urtatza-zahar; herriko parkeak (San Ignazio...).

3. Udaletxean **papera erosteko araudi** berria.

Inmak udaletxean Ekoscan programaren barruan lantzen ari diren iraunkortasuneko konpromisoei erantzuteko asmoarekin araudi berri bat egin dela jakinarazi digu. Udaletxeak aurten paper zuriaren erabilera murriztea erabaki du (eta birziklatutako eta klororik gabeko papera erabiltzea) eta helburu hori lortzeko asmoarekin araudi berria egin du.

Araudi berriaren arabera paper birziklatua eta klororik gabea erabili behar da baina ez bakarrik papera erostean edo komunikazioetan,... baita karteletan, argitalpenetan eta bestelakoetan.

Horrezaz gain, Administrazioa eredu den aldetik, udalerrian ere horrelako erabileraren aldeko sentsibilizazioa egingo du (enpresak, elkarteak,...)

4. **Legazpiko Iraunkortasunerako III. Ekintza Plana** egiteko prozesua: nola plazaratuko ditu Agenda 21eko Foroak bere ekarpenak?

Gaur, etxeko lanak jarri ditugu!

Udalak Legazpiko Iraunkortasunerako III. Ekintza Plana egiteko prozesua azaldu digu. Aipatu planak datozen lau urteetan udalerrian bideratuko diren proiektuak zehazten ditu. Zehazki, Ekintza Planaren "egitura" zehaztuta dago. Planak bederatzi lerro estrategiko ditu eta ondokoak dira:

1. INGURUNEA eta BIODIBERTSITATEA babestea eta biziberritzea.
2. KLIMA BABESTEKO estrategiak ezartzea, iraunkorrak diren MUGIKORTASUN ereduak sustatuz eta ENERGIAREN kontsumo arrazionala bultzatuz.
3. KONTSUMO ETA EKOIZPEN IRAUNKORRAK bultzatzea.
4. HIRIGINTZA harmoniko baten alde apustu egitea, hiri-eremuaren kalitatea hobetzea helburu izango duen hirigintza.
5. Legazpiar NORTASUNA garatzea: Legazpiar izatearen eta sentitzearen harrotasuna.
6. Bizi-kalitatea eta zuzentasuna sustatzea.
7. HERRITARREN parte hartzea sustatzea eta baloreetan hezteko herritarren konpromisoa lortzea.
8. Herriko EKONOMIA bizia sustatzea, ingurumena kaltetu gabe enplegua bultzatuko duen ekonomia.
1. Udal KUDEAKETARAKO programa eraginkorrak bultzatzea.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Orain, bederatzi "kutxa" horiek edukiak bete behar ditugu, Legazpin iraunkortasuna lortzea ahalbidetuko duten proiektuak behar ditugu. Ez gara hutsetik abiatuko, udaletxean dagoeneko hainbat ideia landu baitituzte. Hala ere, seguru gaude Foroa bere aletxoak jartzeko gai izango dela.

Fororako hurrengo deialdiarekin batera, Udalak Legazpiko Iraunkortasunerako III. Ekintza Planaren "egitura" bidaliko digu eta lerro estrategiko bakoitzean aurreikusitako hainbat proiekturen berri emango digu. Hori ikusita, honako erabakia hartu dugu: **Foroko kide garen aldetik, zirriborro hori osatuko duten bestelako ekintzak pentsatuko ditugula. Hori guztia datorren ekainaren 19an egingo dugun bilera eztabaidatuko dugu.**

5. Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Plana. Jendaurrean agerian egon den epean, zein izan da herritarren erantzuna? Ondorioz, zein aldaketa proposatuko dizkiogu mugikortasun iraunkorreko Planaren Aurrerakinari?

Bukatzeko, Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Plana izan dugu aztergai. Aipatu planaren aurrerakina jendaurrean agerian egon den epean hainbat alegazio eta proposamen aurkeztu dira eta horiei erantzuna eman die plana idatzi duen taldeak. Segidan, erantzun horiek aztertu ditugu.

Ondoren, alegazio eta proposamen horiek erantzun eta gero, **Planaren dokumentua egin da eta plan hori hurrengo Osoko Bilkuran** (maiatzaren 28an egitea aurreikusten da) **behin-behineko onartzea espero da**. Hurrengo urratsa onartutako Plana hilabete batez jendaurrean agerian jartzea izango da eta, segidan, behin betiko onartuko da.

Beraz, bere bidetik doa mugikortasun iraunkorraren alde egin den apustua! Eta Inmak adierazi digunez, dagoeneko jaso dugu horretarako lehenengo diru-laguntza. Onartutako 60.000,- € bidegorriaren zati bat egiteko erabiliko dira. Urrats bat aurrera!

● Hurrengo bilera-egunera arte, agur!

Bilera-eguna erabakita dago eta gaia ere bai!












Esan dugun bezalaxe, datorren hilean ikusiko dugu elkar, uda gainean dugula. Bilera, **ekainaren 19an**, ostegunarekin, egingo dugu eta gogotsu eta indartsu etortzea espero dugu gai garrantzitsua izango dugulako mintzagai: Legazpiko Iraunkortasunerako III. Ekintza plana aurrean dugula, norberaren proposamenak eta ideiak azalduko ditugu, ondoren guztion artean eztabaidatzeko. Zalantzarik ez dugu, guztion artean eta elkar lanean, gure udalerrirako beharrezkoak eta interesgarriak diren ekintzekin beteko ditugula aipatu bederatzi lerro estrategikoak.






Beraz, ekainaren 19ra arte, Pentsatu eta jaso!

Ordurarte, izan ongi eta eskerrik asko!

1. Eranskina. Lehenetsunak ezartzearen emaitzak.

Iraunkortasunerako III. Ekintza Plana egiteko, joan den apirilaren 3ko Foroan **Legazpiko natur ondareari** buruz hainbat jarduketa-proposamen zehaztu genituen; horietatik **zeintzuk dira gure ustez datozen lau urteotan bideratu behar direnak?**

		Jasotako boto-kopurua
Legazpiko natur ondarea babesteko eta zaintzeko ekintza-proposamenak:		
1	<ul style="list-style-type: none"> Aizkorri eremua: <ul style="list-style-type: none"> Udalerrriak modu eraginkorreetan parte har dezala Erabilera eta Kudeaketa zuzentzeko Planaren zehaztapenean eta betetzean. Udalak eta udalerrriak "Aizkorriko Parke Naturalerako atea" izatea bultzatzea. 	<p>18 boto</p> 
2	<ul style="list-style-type: none"> Gorostiaga: Gorostiaga mendiko antolamendu- eta kudeaketa-plana egin. Gorostiaga mendia babesteko bide berezi bat izateko aukera aztertu. 	<p>8 boto</p> 
3	<ul style="list-style-type: none"> Urtatzako urtegia: Urtegiaren ingurunea berreskuratzeko eta balioesteko proiektua egin eta gauzatu. 	<p>10 boto</p> 
4	<ul style="list-style-type: none"> Urola ibaia eta arroa: Ibaia eta iturburua babesteko neurriak hartu eta, era berean, natur baliabide horren balio estrategikoa zabaldu. 	<p>12 boto</p> 
5	<ul style="list-style-type: none"> Aizkorri-Gorostiaga-Izarratiz korridore ekologikoa bultzatu. 	<p>Boto 1</p> 
6	<ul style="list-style-type: none"> Gerriko berdea: Hiri-antolamendurako Plan Orokorrean proposatutako gerriko berdea (Legazpiko hirigunearen inguruan 100 metro) egiteko baliabideak jarri. 	<p>7 boto</p> 
7	<ul style="list-style-type: none"> Bideak eta bidezidorrak mendian zehar: Bideak mantentzeko jarduketak bultzatu (gutxienez lurzoru publikotik igarotzen direnetan). 	<p>6 boto</p> 
8	<ul style="list-style-type: none"> Eremu zehatzak garbitzeko eta berreskuratzeko ekintzak gauzatu, horretarako talde zehatzen laguntza bilatuz (adibidez, ehiza-postuen inguruak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ibaiertzak, ur-ipurtatsaren ekosistema berreskuratu,...) 	<p>6 boto</p> 
9	<ul style="list-style-type: none"> Hirigunean biodibertsitatea sustatzeko Plana egin. 	<p>4 boto</p> 
10	<ul style="list-style-type: none"> Udalerrriko natur ondarearen Inbentarioan balore eta ezaugarri bereziak (flora, fauna,...) dituzten Legazpiko eremuak babesteko eta zaintzeko helburuarekin, Administrazioaren eta jabe pribatuen artean herrialdea zaintzeko hitzarmenak bultzatu. 	<p>11 boto</p> 
11	<ul style="list-style-type: none"> Administrazioaren, basozainen elkarrean eta/edo jabe pribatuen artean lan egitea sustatu. Helburua: Legazpiko baso eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa bultzatu, horretarako ondoko neurriak hartuz: <ul style="list-style-type: none"> Baso-kudeaketa iraunkorragoa lortzeko aholkuen eta jokabide onen berri eman (makineria erabiltzerakoan, espezieak, sortuko diren hondakinak jaso eta kudeatzerakoan,...) eta horretarako dauden laguntzen gaineko informazioa eman. Zuhaitzak moztu aurretik azterketak egin, mugak eta moduak zehazteko helburuarekin (hasiera batean lan hori basozainen egitekoa da baina lan hori indartzea komeni dela ikusten da). <p style="text-align: right;"><i>(hurrengo orrialdean jarraitzen du)</i></p> <p><i>(aurreko orrialdearen jarraipena)</i></p>	<p>17 boto</p> 

	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak landatu gabe dagoen baso-lurra eros dezala, lurzoru horretan bertako espezieak landatzeko. • Baso-pista gehiago zabal daitezela debekatu/mugatu eta horietatik dabiltzan ibilgailuen igarobidea kontrolatu. • Hazkunde laburreko espezieen landaketa udalerrriaren eremu indartsuenetara mugatu (edo, gutxienez, horren berri eman jabeei). • Legazpiko baso-eremuen bilakaera ikustaraztea ahalbidetuko duten adierazleen kalkulua eta jarraipena egin eta neurriak hartu (adibidez, baso-landareekiko bertako espezieek okupatzen duten lursail-proportzioa). 	
12	<ul style="list-style-type: none"> • Legazpiko natur ingurunearekiko jokabide desegokien edo erasoen aurrean herritarren "salaketa" eta kontzientzia kritikoa sustatu, jokabide horiek agerian gera daitezzen eta horien aurka hartu beharreko neurriak har daitezzen. 	<p>12 boto</p> 
13	<ul style="list-style-type: none"> • Suteei aurea hartzeko plan bat egin, nola jokatu adieraziko duen protokoloa izango duena. 	<p>6 boto</p> 
<p>Legazpiko natur ondarea zabaltzeko, ezagutzeko eta balioesteko ekintza-proposamenak:</p>		
14	<ul style="list-style-type: none"> • Legazpiko ondarearen eta dibertsitate natural eta kulturalaren Inbentarioa egin (mendiak, landareak, animaliak, hizkuntza, toponimia, nekazaritzako ohitura zaharrak, bertako haziak,...) <p>Inbentario horren arabera eta ahal dela lehentasun-mailak adieraziz, herri gisa galtzen utzi ezin dezakegun aberastasun, jakinduria eta memoria hori berreskuratzeko eta gordetzeko ekintzak sustatu.</p>	<p>11 boto</p> 
15	<ul style="list-style-type: none"> • Zabaltzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak gauzatu: <ul style="list-style-type: none"> • Erreka eguna ibaia balioesteko ekintza gisa (jarraipena eman). • Naturaren gaineko argazki-lehiaketa eta/edo ikastaroa. • Legazpiko natur ondareari eta inguruneari buruzko argazki erakusketa, dauden errealitate egokiak eta hobe daitezkeenak erakutsiz. • Irteerak eta txangoak (ikastetxeekin koordinatuz). • Legazpin baso-lursailak dituzten jabeen artean lehiaketa antolatu, lursail horiek kudeatzeko jokabide egokiak sarituz. • Urola Garaian biodibertsitateari buruzko bi urteroko lehiaketa sortu. • 2009-2010 ikasturtean biodibertsitatea aukeratu Eskola Agenda 21eko ardatz gisa, ikasturte horretan udalerrian ere gai horrekin lotuta dauden ekintzak sustatuz. • Aholkuak kontsumo iraunkorrari buruz lehen sektorean (herriko produktuen sustapena, arrainaren kontsumo arduratsua,... etab.). 	<p>15 boto</p> 
16	<ul style="list-style-type: none"> • Legazpiko natur aberastasuna ezagutzera emango duten materialak, argitalpenak egin: <ul style="list-style-type: none"> • Inbentarioaren eredu erraz bat egin, herritarrei zuzenduko zaiena. • Legazpiko bide eta ibilbideen katalogoa. • Egutegiak, bideoak, multimedia tresnak... • Lekuan bertan seinaleak jarri (informazio-panelak, identifikazio-panelak,...) 	<p>6 boto</p> 
17	<ul style="list-style-type: none"> • Natur ondarea kudeatzeari dagokionez, jokabide egokiak zabaldu; adibidez: <ul style="list-style-type: none"> • Udaletxeko Nekazaritza batzordean, Legazpiko baserritarrek aukera dute euren ezagutza eta proposamenak konpartitzeko. • Basozainekin eta/edo euren jarduerarekin natur ondarean eragina duten bestelako erakundeekin (adibidez, Iberdrola, basoan jartzen dituen goitentsioko zutabeak direla eta,...) lan pertsonalizatua egin daiteke. • Eskolako Agenda 21aren bidez ikastetxeekin egin daiteke lan. 	<p>10 boto</p> 